

1033/2018 EBAZPENA, BARRUALDE-GALDAKAO ESIKO ZUZENDARI GERENTEARENA, BARRUALDE-GALDAKAO ESIKO EAGKO ARDURADUNAREN EGINKIZUNAK ESLEITZEN DITUENA.

Barrualde-Galdakao ESIKO EAGKO koordinatzaile lanak egiteko langilea behar da, hori dela eta, lanpostu hori betetzeko deialdi publikoa egingo da, honako oinarrien arabera:

RESOLUCIÓN 1033/2018, DEL DIRECTOR GERENTE DE LA OSI BARRUALDE-GALDAKAO POR LA QUE SE CONVOCA LA ASIGNACION DE FUNCIONES DE RESPONSABLE DEL P.A.C. EN LA OSI BARRUALDE-GALDAKAO

Resultando necesario contar con la figura de coordinador de la Atención Continuada de la OSI Barrualde- Galdakao, se acuerda anunciar convocatoria pública con arreglo a las siguientes:

## OINARRIAK

### 1.- Bete beharreko eginkizunak:

Etengabeko Arreta Guneetan prozesu asistentziala hobetzea eta arretako beste maila batzuekiko elkarreagina erraztea. Horrez gain, Barrualde-Galdakao ESIKO etengabeko arreta osatzen duten giza baliabideak kudeatuko eta koordinatuko ditu.

### 2.- Parte hartzeko baldintzak: (agiriaren bidez frogatu beharko dira, ez bada SAPen mekanizatuta daudela):

- Estatutarioa, funtzionarioa edo lan-kontratu finkoko langilea izan behar du eta A1 edo B1 kategoria profesionalean plaza jabetzan izan. Bestalde, Barrualde-Galdakao ESIKO EAGetako bati atxikita egon behar du.
- Honako ikasketa-titulu hauetako bat izatea:
  - Medikuntzako edo Kirurgiako lizentziatura edo gradua izatea, Familia eta Komunitateko Medikuntza espezialitatean edota Medikuntza Orokorreko Medikuen funtzioak betetzeko ezarritako titulua, ziurtagiri edo diploma izatea, uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuko —Osakidetza Zuzenbide Pribatuko Entitate Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituenekoa— I. eranskinean zehaztutakoa betez.
  - Erizaintzako diplomatura edo unibertsitate gradua izatea.
  - A1/B1 taldeko berezko zereginak betetzen gutxienez 4 urteko lanbide-esperientzia izatea.
  - 2HE egiaztatuta izatea.

### 3.- Aurkeztu beharreko agiriak: deialdian parte hartuko dutenek eskabidearekin batera hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Lan-egitasmoa
- Curriculum vitae, hauek jasotzen dituenak:
  - Titulu akademikoak
  - Aurretik betetako lanpostuak
  - Lanbide-esperientzia
  - Ikasketak, ikastaroak, hitzaldiak, argitalpenak eta hautagaiek egokitzat jotzen dituzten bestelako merezimenduak.

## BASES:

### 1.- Funciones a desarrollar:

Facilitar la mejora del proceso asistencial en los Puntos de Atención Continuada y su interacción con otros niveles de atención, así como gestionar y coordinar los recursos humanos que componen la atención continuada de la OSI Barrualde-Galdakao

### 2.- Requisitos de participación: (Se deberán acreditar documentalmente salvo que estuvieran mecanizados en SAP):

- Ser estatutario, funcionario o laboral fijo y tener plaza en propiedad en el grupo profesional A1 o B1 y estar adscrito en la actualidad a uno de los PAC de la OSI Barrualde-Galdakao.
- Estar en posesión de una de las siguientes titulaciones:
  - Licenciatura o grado en Medicina y Cirugía, con la especialidad en Medicina Familiar y Comunitaria o alguno de los títulos, certificados o diplomas establecidos para el ejercicio de las funciones de Médico Medicina General, de conformidad con lo previsto en el Anexo I del Decreto 186/2005, de 19 de julio, que regula los puestos funcionales del Ente Público Osakidetza.
  - Diplomatura o Grado Universitario en Enfermería.
- Experiencia profesional mínima de 4 años en el desempeño de tareas propias de los grupos A1/B1.
- Perfil 2 acreditado

### 3.- Documentación a aportar: Las/os aspirantes que deseen tomar parte en la presente convocatoria deberán acompañar a la solicitud:

- Proyecto de trabajo.
- Curriculum Vitae en el que harán constar:
  - Títulos Académicos
  - Puestos de trabajo desempeñados
  - Experiencia Profesional
  - Estudios, cursos, ponencias, publicaciones y cuantos otros méritos estimen oportuno manifestar.



Era berean, hautagaiak adierazitako merezimenduak daukatela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte; Osakidetzako CV aplikazio informatiko korporatiboan balioztatuta ez badaude.

#### 4.- Balorazio batzordea:

Balorazio batzorde bat osatuko da, eta batzordeburua Integrazioko zuzendariak edo hark eskuordetzen duena izango da. Horretaz gain, hauek izango dira bertako partaideak: Erizaintzako zuzendaria, Pertsonaleko zuzendaria eta Aholkularitza Juridikoko zerbizburua (idazkaria izango dena).

#### 5.- Eskabideak aurkeztea:

Interesdunek Osakidetza-Euskal Osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakao ESiko Pertsonaleko Zuzendaritzan aurkeztu beharko dituzte eskabideak (Labeaga auzoa 46 A, 48960 Galdakao). Horretarako 15 egun balioduneko epea izango dute deialdia Barrualde-Galdakao ESiko intranetean eta iragarki-tauletan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Así mismo, deberán adjuntar los aspirantes, la documentación justificativa de los méritos alegados salvo que consten debidamente validados en la aplicación informática corporativa de CV. de Osakidetza.

#### 4.- Comisión de valoración:

Se constituirá una Comisión de valoración presidida por la Directora de Integración o persona en quien delegue, e integrado por el Director de Enfermería, Directora de Personal, y el Jefe de Servicio de la Asesoría Jurídica que actuará como secretario

#### 5.- Presentación de solicitudes:

Los interesados dirigirán sus solicitudes a la Dirección de Personal de la OSI Barrualde-Galdakao (B.º Labeaga, 46 A, 48960 Galdakao) de Osakidetza-Servicio vasco de salud, dentro del plazo de 15 días hábiles contados a partir del siguiente al de la publicación de la convocatoria en la intranet y en los tablones de anuncios de la OSI Barrualde-Galdakao.

Galdakaon, 2018ko apirilaren 20an

Galdakaon, 2018ko apirilaren 20an



Izpta./Fdo.: Miren Josu Ormaetxea Legarreta

BARRUALDE-GALDAKAO ESiko ZUZENDARI GERENTEA  
BARRUALDE-GALDAKAO ESiko PERTSONALEKO ZUZENDARIA  
(URTARRILAREN 31KO, 1/2014 EBAZPENAK DIOENAREN ARABERA, SINADURA ESKUORDETZEA)  
DIRECTOR GERENTE DE LA OSI BARRUALDE- GALDAKAO  
DIRECTORA DE PERSONAL DE LA OSI BARRUALDE-GALDAKAO  
(DELEGACIÓN POR RESOLUCIÓN 1/2014 DE 31 DE ENERO)